

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GALDAKAOKO UDALAREN 2019KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onartu zuen joan den ekainaren 24an Galdakaoko Udalaren eta bi erakunde autonomoen (Udal Euskaltegia eta Musika Eskola) kudeaketa ekonomikoaren eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2019ko ekitaldikoa.

2019ko ekitaldiko urteko kontuei dagokienez, HKEEK **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz kontularitzako zenbait doiketa azaleratu diren; horiek erregistratuz gero, Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 99 mila euroan murriztuko litzateke eta Udal Euskaltegiarena, berriz, 63 mila euroan gehitu.

Fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakutsitako **finantza egoerari** dagokionez, HKEEK adierazi du zerga itunduen finantzaketaren gehikuntzek eta beste aldaketa batzuek eragiketa arrunten egitura hobetu dutela, eta sortutako aurrezki-maila handitu. Hirurtekoan geldikinak handiak izan dira eta aztertutako aldiari egindako inbertsioak nasaiki gainditu dituzte. Aurreikuspenen arabera, aurrezpen mailak behera egingo du 2020an, baina Udalaren egoera onberari esker, litekeena da 2020an sortutako krisiaren ondorioak arintzea.

Bestalde, Epaitegiak azpimarratu du COVID 19aren ondorioz, 2020ko kontuetan aurreikusitako ondorio nagusia Udalkutxaren diru-sarrerak 1,8 milioi euro murriztea izan dela.

Halaber, Udalaren Kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, **2019ko** ekitaldian bete egin da 2019ko aurrekontuaren likidazioan **aurrekontuaren egonkortasuna, gastuaren araua, eta zorraren helburua.**

Bai Udalak bai haren erakunde autonomoek **zuzentasunez bete dute** 2019an haien ekonomia eta finantza jarduera arautu duen **lege araudia**, nahiz unean uneko akatsak azaleratu diren administrazioko kontratazioaren atalean, hala nola, lau kontratu mugaegunaz haratago luzatu dira; prozedura ireki bitartez esleitu behar ziratekeen bi prestazio kontratu txiki modura izapidetu dira; eta kontratu baten sailkapena oker egin da.